



## **Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

2024/04/25ean EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 25/04/2024.

### BERTARATUAK- ASISTENTES

#### Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

#### Zinegotziak

Alaitz Orueta Arrese  
Edorta Barandiaran García  
Xabier Uriarte Iñurrategi  
Irati Iglesias Pozo  
Mikel Luengo Gabarain  
Dorleta Sologaistoa Aguiriano  
Maite Uribe Beristain  
Antonio Regaño Sajeras  
Josu Ezkurdia Santamaria

#### Idazkaria

#### EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2024ko apirilaren 25ean, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Puri Regidor Varela.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 25 de abril de 2024, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Puri Regidor Varela.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAAEAHHT.LT1S>

**2024/04/25**  
**Ohiko Osoko bilkura**  
**Pleno Ordinaria**



## **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

2024/03/21ean egindako osoko bilkurako akta onartu da..

## **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

2024ko martxoaren 14ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman da.

Berariaz eman da 5., 6. eta 7. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko Alkate erabakien berri.

## **3.- ATXORROTXEKO HORMEN ERABILERA BAIMENTZEKO KONTRATUAREN DENUNTZIA JASOTZEA.**

Udalbatzarrak, 2020ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, besteak beste, ondorengo erabakiak hartu zituen:

**Lehenengoa.-** Atxorrotxeko (Katastroko 3. poligonoa, 182. lurzatia) harkaitzen erabileraren, Jose Antonio Itarte Zaraguetaren jabetzakoak direnak, doako lagapena onartzea eta eskalada sustatzeko erabiltzea udal kirol jarduera gisa Gipuzkoako Eskalada Eremuak Berrekipatzeko Proiektuaren barruan.

**Bigarrena.-** Higiezin hori udal honi lagatzeko baldintzak arautzen dituen formalizazio-dokumentuaren testua onartzea, eranskin gisa honekin batera doana.

**Hirugarrena.-** Atxorrotzeko eskalada eremuari dagokionez, honako konpromiso hauek hartzea Udalak:

- Eskalada guneko mendi-hegalera iristeko bideetan sastrakak kentzea eta bideak garbitzea.
- Eremuari buruzko informazio-panela jartzea eta, ondoren, mantentze-lanak egitea.
- Eskalada eremua Udalaren kirol-instalazioen ohiko kudeaketan sartzea.

2020ko maiatzaren 12an lagapena arautzen zuen kontratua sinatu zen Jose José Antonio Itarte Zaraguetarekin.

Kontratu horren 6. baldintzan honako hau jasotzen da: Dokumentu honetan emandako baimenaren iraupena 4 urtekoa izango da, eta epe hori amaitzen denean automatikoki berritzen joango da urtebeteko aldiatarako. Kontratua bi alderdietako edozeinek salatu ahal izango du, idatziz egin beharko dena baimen epea amaitu baino bi hilabete lehenago.

Amaia Saenz de Viteri Pozuelok eta Pedro Lasagabaster Armendarizek, higiezinaren egungo jabeek, kontratua denuntziatzeko idazkia aurkeztu dute 2024ko martxoaren 5ean.

Kontuan izanik 4 urteko epea datorren maiatzaren 11n amaitzen dela, eta denuntzia ezarritako baldintzen arabera aurkeztu dela, Gizarte Zerbitzuak eta Kirola batzorde informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorriz, Udalbatzarrak erabaki honen aurrekarietan adierazitako kontratuaren denuntzia jasotzen du eta kontratuaren indarraldia amaitutzat jotzen du 2024ko maiatzaren 11n.

**2024/04/25  
Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Ordinaria**

#### **4.- ESKORIATZAKO OLAZAR JUBILATU ETXEKO TABERNA-ARETOA USTIATZEKO KONTRATUA ESLEITZEA.**

Olazar Jubilatuen Etxeko Taberna-aretoa ustiatzeko eskubidearen esleipenari buruzko espedienteari dagokionez, hona hauek hartu behar dira kontuan: :

- Kontratacio honetako espedientea Udalbatzarraren erabakiz onartu zen 2024ko otsailaren 22an egindako osoko bilkuran.
- Jubilatuen Etxeko Taberna-Aretoa ustiatzeko kontratua Cristina Florentina Davilar (lizitatzale bakarra) esleitzea proposatu zuen Kontratacio Mahaia 2024ko martxoaren 21ean egindako bileran.
- Proposamen horretan interesdunari eskatzen zitzzion kontrataazioa arautzen duten baldintza agirietan jasotakoaren arabera aurkeztu beharreko dokumentuak aurkezteko.
- Errekerimendua horri erantzunez, interesdunak kontratua esleitzeko eskatutako dokumentazioa aurkeztu du.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Gizarte Zerbitzuak eta Kirola batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hauek ERABAKI DITU:

**LEHENENGOA.**- Olazar Jubilatuen Taberna-Aretoa ustiatzeko kontratua Cristina Florentina Davila andreari esleitza baldintza administratiboetako agiriaren, baldintza teknikoen agiriaren eta esleipendunak bere eskaintzan egindako hobekuntzen arabera. Kontratua gauzatzeko epea bi urtekoa izango da, formalizatzen denetik zenbatzen hasita. Urtean behin luzatu ahal izango da, baina luzapenak barne, ezin izango du bost urte baino gehiago iraun, eta esleipendunak Administrazioarekin kontratatzeko eskatzen diren baldintzak egiaztatu beharko ditu.

**BIGARRENA.**- Alkate jaunari ahalmena ematea dagokion kontratua Udalaren izenean eta ordezkaritzan sinatzeko.

**HIRUGARRENA.**- Kontratuaren esleipendunari erabaki honen berri ematea eta kontratua sinatzeko deitza. Kontratua esleipenaren jakinarazpena lizitatzaleari bidali eta gehienez ere hamabost egun balioduneko epean formalizatu beharko da. Formalizatu izanaren iragarkia Kontratatzalearen profilean argitaratuko da.

**LAUGARRENA.**- Kontratu honen esleipena eta formalizazioa Kontratatzalearen Profilean argitaratzea.

#### **5.- ESKORIATZATIK MAZMELA ELIZATERAKO GURDIBIDE ZAHARRAREN TITULARITATEA IKERTZEKO ESPEDIENTEA HASTEKO ESKAERA.**

María Pilar Resa Andujar andreak, María Aranzazu Biain Arregui andrearen, José Angel Biain Arregui jaunaren eta María del Carmen Biain Arregui andrearen izenean, "Eskoriatzatik Mazmela elizaterako jatorrizko gurdibidearen" titulartasuna ikertzeko eskatu du.

Udalbatzarrak 2021eko ekainaren 22an hartutako erabakia ikusi da. Hona hemen erabakia hitzez hitz:

2024/04/25  
Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Ordinaria

**3.- ESKORIATZATIK MAZMELA ELIZATERAKO GURDIBIDE ZAHARRAREN TITULARITATEA IKERTZEKO ESPEDIENTEA HASTEKO ESKAERA.**

*Sara Jauregui Llorens andreak, María del Carmen Biain Arregui andrearen ordezkari gisa, Eskoriatzatik Mazmela Elizaterako jatorrizko gurdibidea Udalaren titulartasunekoa den zehazteko ofiziozko ikerketa-espedientea hasteko eskaera du.*

*Eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioa ikusi da.*

*Kontuan hartzen da ikerketa egiteko eskubidearen helburua dela titularitaterik ez duten ondasunen egoera ikertzea Udal honetakoak izan daitezkeenaren zantzuak daudenean.*

*Eskoriatza-Mazmela errepidearen titulartasuna Gipuzkoako Foru Aldundiari eskualdatu zitzaison, eta gaur egun Gipuzkoako Foru Aldundiaren Tokiko Errepide Sarearen parte da, Udal honetan dagoen Errepideen Katalogoa jasota dagoenez.*

*Aurrekoaren ondorioz, eta Gipuzkoako Errepide eta Bideei buruzko azaroaren 25eko 17/94 Foru Arauaren 3. artikuluaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio errepide horren titulartasuna, eta, beraz, jatorrizko bideari buruzko edozein ikerketa-ekintza Gipuzkoako Lurralde Historikoko Administrazio horretan aurkeztu behar da (aipatutako Foru Arauaren 110. artikuluak xedatzen duenez, errepideen eta bideen titular diren administrazioei dagokie bideen jabari publikoko ondasunen jabetza berreskuratzeko administrazio-ahalmena). Hori dela-eta, Personal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako diktamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:*

*Sara Jauregui Llorens andreak, María del Carmen Biain Arregui andrearen ordezkari gisa, Eskoriatzatik Mazmela Elizaterako jatorrizko gurdibidea Udalaren titulartasunekoa den zehazteko ofiziozko ikerketa-espedientea hasteko egindako eskaera EZESTEA erabaki honen aurrekarietan jasotako arrazoiengatik.*

Kontuan hartu beharrekoak:

- 1.- Transkribatutako erabakian Udalbatzarrak adierazi zuen bezala, ikertzeko eskubidearen helburua da titularitaterik ez duten ondasunen egoera ikertzea ondasun horiek Administrazioarenak izan daitezkeela esateko zantzuak daudenean.
- 2.- Eskoriatzatik Mazmela elizaterako jatorrizko gurdibidea egokitutako hobetu egin zen 1966 eta 1970 bitartean. Obren ondoren, bide hori Mazmelarako GI-3342 foru-errepidea da..
- 3.- Lehen transkribatutako Udalbatzarraren erabakian adierazi zen bezala, eta hala jasota dago Gipuzkoako Foru Aldundiak 2021eko azaroaren 18an emandako txostenean, Eskoriatzatik Mazmelarako errepidearen titulartasuna Gipuzkoako Foru Aldundiarena da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Tokiko Errepideen Sarearen parte da (GI-3342), Errepideen Katalogoa jasota dagoenez.
- 4.- APSLren 45. artikuluaren arabera, ikertzeko eskubidea baliatzeko, lehenengo eta behin, ikertutako ondasuna edo eskubidea Udal honen ondarearen parte izatearen aldeko presuntzioa behar da; eta bigarrenik, ondasun edo eskubide horren titulartasuna zehatz jasota ez egotea edo jabari-tituluetan nolabaiteko eztabaidea egotea. Eskoriatzatik Mazmela elizaterako jatorrizko

gurdibide zaharrari dagokionez, premisa horiek ez dira betetzen, Foru Aldundiaren titulartasuneko den GI-3342 errepidea baita.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako EH BILDUko 6 udalbatzarkidek alde bozkatuta eta EAJ/PNVko 4 zinegotziak abstenituta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

*Sara Jauregui Llorens andreak, María Aranzazu Biain Arregui andrearen, José Angel Biain Arregui jaunaren eta María del Carmen Biain Arregui andrearen izenean, Eskoriatzatik Mazmela Elizaterako jatorrizko gurdibidea Udalaren titulartasuneko den zehazteko ofiziozko ikerketa-espedientea hasteko egindako eskaera **EZESTEA** erabaki honen aurrekarietan jasotako arrazoiengatik.*

#### ESANDAKOAK:

Bozketa aurretik, eta Alkate-Udalburuari baimena eskatuta, Omer Arregui dela esaten duenak, Biain Arregui neba-arreben senideak, hartu du hitza. Bere garaian eskaera idatziarekin batera aurkeztutako dokumentazioan jasotako egitateak azaldu ditu.

#### **6.- 8. KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.**

UDAL honen Aurrekontuari dagokion Kredituak Aldatzeko 8/2024 espedientea irakurri da. Kreditu aldaketa kreditu gehikuntza bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaleak egindako txostenetan irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkaritza-kontuhartzaitzak egindako txostenetan ikusita, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamena bototara jarri da, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiekin alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 8/2024 espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

Gastuen aurrekontu aplikazioa	I. Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0200.421.920.00.01 2024	MANKOMUNITATEA:ADMON. ORO KORRA	51.830,52	13.206,61	65.037,13
1 0100.227.162.10.13 2024	MANKOMUNITATEA:HONDAKIN BILKETA	216.335, 88	41.413,20	257.749,08
1 0100.227.162.20.13 2024	MANKOMUNITATEA:HONDAKIN KUDEAKETA	35.791,32	5.069,64	40.860,96
1 0100.227.162.30.13 2024	MANKOMUNITATEA:HONDAKIN TRATAMENDUA	142.285, 80	2.406,63	144.692,43
1 0100.227.241.00.13 2024	MANKOMUNITATEA:ENPLEGUA	18.292,56	3.113,33	21.405,89
1 0100.227.432.00.13 2024	MANKOMUNITATEA:TURISMOA	16.524,96	2.674,12	19.199,08
1 0200.721.920.00.01 2024	MANKOMUNTATEA:ZERBITZU OROKORRA	1.037,20	3.915,42	4.952,62
1 0100.721.241.00.01 2024	MANKOMUNTATEA:ENPLEGUA	64,83	69,02	133,85
1 0400.721.324.00.01 2024	APORTAZIOA:MANKOMUNIT:HEZ KUNTZA	194,48	6,30	200,78
1 0100.721.432.00.01 2024	APORTAZIOA:MANKOMUNIT:TUR ISMO	64,83	169,42	234,25
1 0100.470.150.00.01 2024	SURADESA	6.518,93	5.175,79	11.694,72

2024/04/25  
**Ohiko Osoko bilkura**  
 Pleno Ordinaria

1 0200.131.241.00.01 2024	ALDI BATERAKO PERT:ENPLEGUA	22.671,3 5	23.895,76	46.567,11
1 0200.160.241.00.01 2024	GIZARTE- ASEGURANTZA:ENPLEGUA	8.775,55	8.797,46	17.573,01
1 0100.226.491.00.01 2024	KANONAK:TELE BANAKETAREN ZERBITZUA	2.000,00	2.000,00	4.000,00
1 0100.211.323.40.01 2024	MANTENIMENDUA:L.EZEIZA IKASTETXEA	1.500,00	5.000,00	6.500,00
1 0100.481.431.50.01 2024	DIRU LAGUNTZA.AXTROKI MERKATARI ELKARTEA	0,00	3.500,00	3.500,00
<b>GUZTIRA</b>		523.888,2 1	120.412,70	644.300,91

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0200.870.000.00.01 2024	DIRUZAINTZAKO GERAKINA:GASTU OROKORRETARAKO	120.412,70
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>120.412,70</b>

#### KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

2024/04/25  
**Ohiko Osoko bilkura**  
 Pleno Ordinaria

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea 15 egun balioduneko epean, nahi duenak erreklamazioak jar ditzan. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betiko bihurtuko da, eta espediente honi egin beharreko tramiteak Aurrekontu Orokorra onartzekoak izango dira.

**ESANDAKOAK:**

Josu Ezkuriak galdu du hondakinak biltzeko mankomunitateko zerbitzuak izan duen igoeraren aurrean ea planteatu den herritarrei kobraztzen zaien tasa igotzea.

Alkateak erantzun dio gaia datorren urteko ordenantzak aztertzeraoan jorratuko dela, hasiera batean ez dela planteatu tasa lehenago igotzerik.

**7.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.**

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaratuta egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoien batzuengatik aurreko ekitaldietatik kobraztu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramatutako espedientearen berri eman da.

2024ko urriaren 31n egindako EIOZaren likidazioaren aurka JAKIONek jarritako errekurso del-a eta kontuhartzaitzak bere garaien jarritako eragozpena ezagututa, eta Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Kobraztzen dauden eskubideei baja emateko talde espedienteak onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuengatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboei eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

- Udalak egindako kitapenari (19.089,69 €) jarritako errekursoa onartzeagatik kobraztzen dauden eskubideen baja.

IFK	KONTZEPTUA	URTEA	ZENBATEKOA	ZERGATIA
B20570230	Hirigintza lizentzia zerga. Erreziboa: 2023 81 83	2023	17.975,23	Jarritako errekursoen onarpena
B20570230	Hirigintza lizentzia tasa. Erreziboa: 2023 81 83	2023	1.114,46	Jarritako errekursoen onarpena
GUZTIRA			<b>19.089,69</b>	

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea kontuhartzaitza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoei beste arrazoiren batzuengatik preskribatutzat edo baliogabetutzat deklaratutako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

#### **8.- UDAL LOKALAREN ERABILERA ALDAIPE ELKARTEARI PREKARIOAN LAGATZEA.**

Gizarte Zerbitzuak eta Kirola batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiekin alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** ALDAIPE ELKARTEARI doan eta prekarioan lagatzea Intxaurtxuetako 9. zenbakiko eraikinaren etxabeen dagoen lokalaren erabilera taldearen jarduera administratiboak egin ahal izateko.

**Bigarrena.-** Lokala urtebeterako lagatzen da, honako baldintza hauekin:

1.- Lokala administrazio izaerako jardueretarako erabiliko da bakarrik.

2.- Onartutako erabilera edota aurretik baimendutako erabilera emango dio erabiltzaileak lokalari. Behar bezala zaintzeko betebeharra du, egindako kalteen erantzule izanik; eta jasotako egoera berean itzuli beharko du kontratua bukatzen denean.

3.- Udalak eskubidea izango du lagatako lokalaren ordez beste lokal bat lagatzeko interes publikoko arrazoiengatik lokal berreskuratu beharko balu.

4.- Erabiltzaileak konpromisoa hartzen du lagatako lokala behar bezala eta arduraz zaintzeko. Udalaren kontura izango dira argindar gastuak, baina, lokalaren garbitasuna zein izan daitezkeen gainerako gastuak (telefona, interneta...) ALDAIPE ELKARTEAREN” kontura izango dira.

5.- Prekarioan lagatakoa bertan behera gelditu daiteke honako arrazoi hauengatik:

- Lokala gaizki erabiltzeagatik.
- Epea amaitzeagatik.
- 3.- Erabiltzaileak uko egiteagatik.
- Lokala lagatzea justifikatu duten arrazoi sozio-ekonomikoak aldatu direlako.
- Udalaren eskariz lagatzea baliogabetzeagatik; noiznahi egin daitekeena interes sozialeko arrazoiengatik baldin bada.
- Ebazpen judzialarengatik.

6.- ALDAIPE ELKARTEA zuzenbide pribatuko eta irabazi asmorik gabeko taldea da, eta inolaz ere ez dago Udalaren menpe, eta Udalak ez ditu zuzentzen lokalean egin beharreko ekintzak, eta ez du bere esku utzi eta ez dio ere inolako onespenik edo baiezkorik eman; bakar bakarrik lokalak lagatzen du, eta beraz, ez du bere gain hartzen ez zuzenean ez modu subsidiarioan edozein motako ekintzak egiteagatik edo ez egiteagatik lokalean gerta daitezkeen kalte materialik, pertsonalik edo moralik.

7.- Hitzarmenak urtebeteko iraupena izango du, 2024ko maiatzaren 1etik 2025eko martxoaren 31ra arte. Hitzarmena amaitutzat emango da alde bietako batek idatziz salatutakoan. Aipatutako salaketa hitzarmen honetako klausularen bat ez betetzearen aurkeztu daiteke.

Kontrataua urtero luzatuko da, alde bietako batek ez badu salaketarik jartzen behintzat. Salaketa jartzekotan, kontrataua amaitu baino hiru hilabete lehenago egin beharko da.

#### **9.- GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.L. ENPRESAK EGINDAKO ESKAERA: ZERBITZUA EMAN BEHAR DUTEN LANGILEEN HIZKUNTZA GAITASUNA BERMATZEKO PLANA AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA.**

Udalbatzarrak 2023ko abenduaren 13an egindako osoko bilkuraren hartutako erabakiz, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kudeaketa GIZADI ELKARTEA enpresari esleitu zitzaion.

GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK SL enpresa behartuta zegoen zerbitzua ematen ari ziren langileak subrogatzera, eta, horregatik, ezin zituen baldintza-agirietan ezarritako hizkuntza-eskakizunak bete. Kontratazioa arautzen duen baldintza teknikoen agirian jasotako aurreikuspenaren babesean, eta Euskara Zerbitzutik egindako proposamenaren arabera, esleipena baldintza hauen mende geratu zen:

1. Kontrataua esleitzeko, GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.L. enpresak hizkuntza-normalizazioko plan bat aurkeztu beharko du, 3 hilabeteko epean, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Plan horren helburua izango da subrogatutako langileak pixkanaka gaitza kontratazioa hau arautzen duten baldintza agirietan finkatutako hizkuntza baldintzetan zerbitzua emateko.
2. Plana aurkeztu aurretik, GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.L. enpresak zerbitzuaren arduradun tekniko eta politikoekin adostu beharko du planaren edukia, eta arduradun politikoek euskara arloko udal teknikarien aholkularitzara jaso ahal izango dute.
3. Aurkeztutako planak Udalaren Osoko Bilkuraren onesprena izan beharko du, kontratazio-organoa den aldetik.

Eskatutako hizkuntza normalkuntzarako plana aurkezteko epea luzatzea eskatu du GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.L.k 2024ko apirilaren 17an. 2024ko uztailaren 15era arte luzatzeko eskatu du.

Gizarte Zerbitzuak eta Kirola batzorde informatzaileak egindako diktamena ikusita, eta udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Hizkuntza-normalizazioko plana aurkezteko GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.L.ri emandako epea 2024ko uztailaren 15era arte luzatzea. Plan horren helburua da subrogatutako langileak pixkanaka gaitza kontratazioa arautzen duten baldintza agirietan finkatutako hizkuntza baldintzetan zerbitzua emateko.

#### **10.- HEZKUNTZA EZ-FORMALEKO EREMUETAN INDARKERIAREN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOA**

2024/04/25  
Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Ordinaria

Kultura, Euskara eta Hezkuntza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Hezkuntza ez formaleko eremuetan (aisialdirako eta kiroletarako gunean) indarkeriaren aurrean jarduteko protokoloa ONARTZEA eta EZARTZEA. Protokoloa Eskoriatzako zenbait udal zerbitzuren artean egin da: Gazteria eta Hezkuntza Zerbitzua, Gizarte Zerbitzuak, Zerbitzu Psikosoziala eta Gizarte eta Hezkuntza arlokoa, Prebentzio Zerbitzua eta Gaztelekua.

#### **11.- PALESTINAREKIKO ERANTZUKIZUNA PLATAFORMAK ESKATUTA ALKATETZAK AURKEZTEN DUEN MOZIOA**

Hitza emanda, Palestinarekiko Erantzukizuna Plataformaren eskariz aurkeztutako mozioaren xede zatiaren berri eman du Xabier Uriartek.

Ondoren, Josu Ezkurdiak adierazi du bere taldearentzat mozioa “motz” gelditzen dela. Jarraitu du esaten Palestinan Israel egiten ari den genozidioaren aurka daudela erabat, baina uste dutela Hamas egiten ari den terrorismoa ere salatu beharko litzatekeela, gaur egun, oraindik ere, jendea bahituta duelako. Uste du ez dela zenbaki kontua, ze aldetan hildako gehiago egon diren, baizik eta sufrimendu guztiak salatu behar direla, eta bere garaian ETAren terrorismoaren aurka egiten zuten bezala, egoera honetan ere uste dutela alde bietako terrorismoa salatu behar dela, bai Israelek Palestinan egiten duena bai Hamas talde terrorista palestinarrak egiten duena. Amaitzeko esan du bere taldeak nahiago lukeela bere garaian Nazio Batuetan onartutako erabakian egiten den bezalako planteamendu bat, non aurkeztutako mozioan salatzen den guzia salatzeaz gain Hamasen jarduera ere salatzen den, eta horregatik, mozio honen aurka bozkatuko dutela.

Hitz egiteko txandak amaituta, bozketa egin da.

EH BILDUko 7 zinegotziek alde bozkatuta, eta bertaratutako EAJ/PNVko 3 zinegotziek aurka, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

- Palestinan berehalako su-etena eskatzea, eta Gobernuari eskatzea Gazako Zerrendan laguntha humanitarioa sartu eta emango dela ziurtatzea, betiere langile humanitarioen babesa bermatuz.
- Biztanleria zibilaren aurkako eraso guztiak salatzea eta Nazioarteko Eskubide Humanitarioekiko eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearekiko errespetua

eskatzea, NBEk gerra-krimenak eta gizateriaren aurkako krimenak (genozidioa eta apartheid-a barne) amaitzeko eta zigortzeko behar dituen mekanismoak aktibatuz.

- Onartza okupazio koloniala eta apartheid-a direla gatazkaren egiturazko arrazoik, eta nazioarteko komunitateak Nazio Batuen ebazenak eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea bete behar dituela, bake justu eta iraunkorra eraikitzeko berme gisa.
- Israelgo gobernuarekin harreman instituzional guztiak etetea behin betiko suetena izan arte, Palestinako herriaren giza eskubideak bermatu arte eta Israelek Nazioarteko Zuzenbidea eta Nazio Batuen ebazenak bete arte.
- Eusko Jaurlaritzari eskatzea, Udal honetatik egiten dugun bezala, Spainiako Gobernuari exiji diezaiotela Estatuko esparru juridikoan ezarritako betebeharrok bete ditzala eta Israeli norabide biko bahitza militarra ezar diezaiola, bai eta Israelekin lankidetza militarreko eta segurtasuneko programa guztiak bertan behera utz ditzala ere, Palestinako herriaren eskubideak errespetatu arte.
- Eusko Jaurlaritzari, eta Spainiako Gobernuari Gazako Zerrendaren aurkako bombardaketak eta setioa gelditzeko behar diren neurri diplomatiko guztiak har ditzatela eskatza, Israelgo gobernuaren eta haren arduradunen aurkako zigor-programa barne, eta Israelgo Estatuarekin harreman diplomatikoak etetea Nazioarteko Zuzenbidea eta Nazio Batuen ebazenak bete arte.

## **12.- LARRIALDIETARAKO OSASUN ZERBITZUARI BURUZ EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Hitza emanda, Dorleta Sologaistoak egun Oñatin dagoen “bizi euskarri aurreratu” zerbitzuak bere ustez dituen akatsak azaldu ditu. Esan du zerbitzuaren prekariatatea ez dela bakarrik mediku faltagatik eta anbulantzia gutxi egoteagatik, badela horien aurretik dagoen beste elementu bat: zerbitzuaren kudeaketa txarra. Jakinarazi du egun hauetan gehiago igarri dela langileak egiten arin diren protesta ekintzengatik (txandak bere gain ez hartza, telefonorik ez hartza...), eta horrekin lehendik datorren arazo bat agerian jartza besterik ez dela egin. Amaitzeko esan du zerbitzuak dagokion medikua beti izatea bermatuko duten neurriak hartu behar direla, eta azpimarratu du arazoa, hein handi batean, kudeaketa txarraren ondorio dela.

Ondoren, Josu Ezkurdiak adierazi du bere taldeak aurka bozkatuko duela, uste baitute mozio bat ez dela bide egokiena horrelako gaiak kudeatzeko, gehienetan “paper” hutsean gelditzen direlako, eta gainera, gai hori Euskadiko bi erakundeei dagokien kontua delako. Horregatik, esan du, Alkateari eskatzen dio gaiari erakundeen bidetik heltzeko, azken hauteskundeen ondoren eratuko den gobernu berriarekin harremanetan jarrita.

Ondoren bozkatu egin da, eta EH BILDuko 7 zinegotziek alde bozkatuta, eta bertaratutako EAJ/PNVko 3 zinegotziek aurka, Udalbatzarrak ondoren hitzez hitz transkribatzen den mozioa onartza ERABAKI DU:

**2024/04/25**  
**Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Ordinaria

### ***MOZIOA***

*Emergentziak Erakunde Sanitario Integratuko egoera egunetik egunera okerrera egiten ari da. Ikusten ari gara ohikoa bilakatzen ari dela mediku gabeko txandak Bizi Euskarri Aurreratuetan. Ikusi dugu nola momentu honetan Oñatiko su hiltzaileen parkean kokatzen den Bizi Euskarri Aurreratuan, martxoak 19ko, 21eko, 22ko eta 24 gauetan ez zela medikuri egon, horrek herritarren larrialdi arretan suposatzen duen guztiarekin. Ezin dugu ahaztu Emergentziak ESI-ak larrialdi egoerak artatzen dituela, maiz hil edo biziko egoerak.*

*Udara sasoian Debagoiena, arrestian aipaturiko egoera berean aurkitu zen eta ondorioz Osasun Sailari bilera eskatu zion egoera konpontzeko asmoz. Baino Debagoienako alkateek eta herritarrek jaso zuten erantzun bakarra izan zen, sarean lan egiten dela eta kalitatezko arreta bermatua zegoela. Alta, sarean lan egitea eraginkorra litzateke, baldin eta larrialdia izandako tokira bermatu beharreko iritxiera denbora estandarra beteko balitz eta nola ez, artapeneko osasun profesionalen ekipoan izan beharreko profesionalen profil guztiak bermatuak baldin badaude. Baino, zoritzarrez momentu honetan ez bata eta ez bestea ez da betetzen. Eta okerrena dena, ez dagoela inolako gardentasunik ez udalekiko eta ez herritarrekiko.*

*Agerian geratzen ari da, urteetan indarrean dagoen pertsonal politikak, planifikazio gabeziak, kudeaketa eta antolaketa kaxkarrak zein ondorio ekarri dituen. Agerian geratzen ari den bezala premiazkoa dela Emergentziak ESI-ko langileekin elkarlanean, Emergentziak ESI-ko kudeaketa, pertsonal politika aldatzeko premia,*

### ***MOZIOA***

- 1.-ESKORIATZAko udalak eskatzen dio Osasun Sailari E3606 Bizi Euskarri Aurreratu errekursoak txanda guzietan bermatua izan dezala medikua.*
- 2.-ESKORIATZAko udalak eskatzen dio Osasun Sailari Emergentziak ESI-ko Bizi Euskarri guztiak zein koordinazio zentroek izan beharreko osasun profesionalen ekipoak eta pertsonala izateko pertsonal politika aldatu dezala.*
- 3.-ESKORIATZAko udalak eskatzen dio Osasun Sailari Emergentziak ESI-ko langileekin elkarlanari ekitea Ospitalez Kanpoko Larrialdien zerbitzuaren antolaketa eta funtzionamendua hobetzeko xedearekin.*
- 4.-ESKORIATZAko udalak Osasun Sailari bere prestutasuna adierazten dio elkarlanerako eta herritarrekiko gardentasunez jokatzeko Debagoienari eragiten dioten Osasun Zerbitzuen egoera eta osasun arreta kalitatea hobetzeko xedearekin.*

### **13.- GALDE-ESKEAK.**

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:30ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**



## **1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.**

Por encontrar conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 21/03/2024 .

## **2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA.**

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 14 de marzo de 2024

De forma expresa se da cuenta de las resoluciones por las que se aprueban los expedientes de modificación de créditos Nº 5, Nº 6 y Nº 7

## **3.- TOMA DE RAZÓN DE LA DENUNCIA DEL CONTRATO DE AUTORIZACIÓN DE USO DE LAS PAREDES DE ATXORROTX.**

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión del día 30 de abril de 2020 , adoptó, entre otros, los siguientes acuerdos:

**Primero:** Aceptar la cesión gratuita del uso de las paredes de roca situadas en Atxorrotz (Polígono 3 parcela catastral 182), propiedad de José Antonio Itarte Zaragueta, y al objeto de que las mismas sean destinadas para la promoción de la escalada como práctica deportiva municipal dentro del Proyecto de Reequipamiento de Áreas de Escalada de Gipuzkoa.

**Segundo:** Aprobar el texto del documento de formalización que regule los términos de la cesión del referido inmueble a favor de este Ayuntamiento y que se une a la presente como Anexo.

**Tercero:** Asumir los siguientes compromisos en relación al área de escalada de Atxorrotz:

- Limpieza y desbroce de maleza en los accesos a la ladera de la zona de escalada
- Colocación del panel informativo sobre la zona y realización del mantenimiento posterior.
- Incorporación del área a la gestión ordinaria de las instalaciones deportivas del Ayuntamiento.

Con fecha 12 de mayo de 2020 se suscribió con D. José Antonio Itarte Zaragueta el contrato que regulaba los términos de la cesión.

En la cláusula 6 de dicho contrato se establece: La duración de la autorización concedida en el presente documento será de 4 años y se renovará automáticamente por períodos de un año a la expiración de dicho plazo. La denuncia del contrato se producirá por la voluntad de cualquiera de las dos partes, que deberá expresarse por escrito dos meses antes de expiration del plazo.

Con fecha 5 de marzo de 2024 Amaia Saenz de Viteri Pozuelo y Pedro Lasagabaster Amendariz, actuales propietarios del inmueble, han presentado escrito denunciando el contrato.

